

IKASLEEN TXOKOA 110. ZENBAKIA

Hernani BHI

DBH 1-2**Egileak:**

Jara Salaberria Pikabea, Maddi Galarraga Mansarres, Ibai Lamuedra Zumeta, Maddi Santa Cruz Arriola, Eneko Oiaga Ziganda, Ane Osambela Obregon, Ganix Urbe Muxika, Irati Mujika Laburu eta Ziortza Larrarte Iribarren.



Euskararen erabilera gazteen artean

Azken urte hauetan, gazteen artean euskarak behera egin duela konturatu gara jasotako datuen arabera eta horren ondorioz, irakasleek zer pentsatzen duten jakin nahi dugu. Honen berri emateko euskara ikasgaia ematen duten bi irakasleentzako jaso ditugu, bat, duela 12 bat urte hasitako irakasle batena, Ane Lujanbio Hernani BHI in irakasten duena, eta bestea, aspaldi hasitako, Jasone Beraustegi, Elizatxo ikastolan lan egiten duena.

Erreportaje honen helburua gazteak euskararen garrantziaz ohartzea eta euskararen egoe-

raz sentsibilizatzea da.

Euskararen erabilera gazteen artean

Gazteen artean euskararen erabilera oso txikia da, baina horrek ez du esan nahi ez dela hitz egiten; batzuek euskaraz solasten dute ez dutelako euskara galtzea nahi. Jasonek esan zuen bezala "Gazteak gure bide berdina egiten ari dira, handiagoak egitean euskararen garrantziaz ohartuko dira".

Euskara gazteen artean ehunekotan


Gazteek euskaraz egiten duten guztia ehuneko batean jasotzen badugu, %50-60 izango litzake.

"Nahikoa gaztek egiten dute euskaraz baina gehiagok egin beharko lukete, behintzat, beraien ama hizkuntza ez galtzeko"

Faktore askotan gazteerara jotzen dutelako, adibidez lagunaren artean, ikasleekin (irakasleak esaten duenari kontra egiteko)... Ane Lujanbio "gehiengoak euskaraz hitz egiten du, bai etxean, eskolatan..." Jasonek, berriz, zera esan zuen "nahikoa gazteek egiten dute euskaraz baina gehiagok egin beharko lukete, behintzat, beraien ama hizkuntza ez galtzeko". Hitz horiek zer edo zer pentsarazten digute denoi.

Euskara ikasteko garaian zer kostatu?

Geroz eta jende gehiagok ikasi nahi du gure hizkuntza polit hau: Euskara. Inorrek ez du esaten, ordea zer zaila den Euskara ondo edo era egokian mintzatzea, horregatik euskara ikasgaia irakasten duten bi irakasleri galdetu diegu ea zer



den zailena euskara ikasteko momentuan. Bi irakasleak ados jarri direla dirudi, hala nola, biek aditzak zuzen erabiltzea eta idaztea direla zailena uste baitute. Aurreiritzi linguistikoak dira ezer baino gehiago, euskara zaila dela sinestera daramana hiztuna. Egia da euskararekin alderatuta hizkuntza oso desberdin bat hitz egitera ohituta zaudenean, oso zaila dela hizkuntza hau ikastea.

Kanpotik datoztenek zenbat denbora ikasten pasa?


"Euskararen etorkizuna oparoa ikusten dut, asko saiatuta berreskuratu daiteke"

Kanpotik datozen ikasleek euskara hizkuntza existitzen denik ere ez dakite, horregatik, Eusko Jaurlaritzak bi urteko laguntza ematen diete eskola egunetan. Gehiengoak ondo hartzen du, batez ere gero gelara joan eta ikaskideek euskaraz egiten badiete, azkarrago ikasten dute.

Euskararen etorkizuna

Euskararen etorkizuna arriskuan dagoela dirudi, baina horregatik ezin dugu Euskaraz hitz egiteari utzi, "Euskararen etorkizuna oparoa ikusten dut, asko saiatuta berreskuratu daiteke", aipatu du Ane Lujanbiok. Hitz hauek entzutean egunero Euskaraz egitera eta jendea euskaraz hitz egitera bultzatzen zaitu.

Egilea: Zihortza Larrarte Iribarren



2008tik 2010era egindako inkesta batetik ateratako informazioetik egina da grafiko hau; 13-16 urte bitarteko gazteei egina.

Euskararen jostunak

Argi dago euskara garrantzitsua dela gure eguneroko bizitzan, baina, zeintzuk dira euskararen erabilera bultzatzen eta bermatzen dutenak? Hainbat dira lan desberdinetan euskara lantzen eta "josten" duten pertsonak. Amagoia Mujika, Gaur8 aldizkariko eta Gara egunkariko kazetaria da euskararekin lotura duen emakumeetako bat, horregatik aukeratu dut Usurbildarra erreportajea egiteko.

Formakuntza eta lana

Amagoia Mujika, Usurbilen bizi izan da haurtzaro osoan zehar. Udarregi ikastolan ikasi zuen Lehen eta Bigarren Hezkuntza; ondoren, Euskal Herriko Unibertsitatean bukatu zuen bere formakuntza. Berak betidanik izan nahi zuen kazetaria baina ez zekien ziur zer arlotakoa izan nahi zuen; horregatik, ohorezko matrikula lortu zuenean, zuzenean aukeratu zuen Kazetaritzako gradua. Orain dela 18 urte, Gara egunkariko Gaur8 aldizkarian sartu zen. Usurbildarrak dioenez, izugarri gustoko du bere lana; izan ere, asko ikasten du eguneroko lanean eta jende interesgarria ezagutzeko auke-

ra eman dio. Amagoia, prentsan eta batez ere prentsa idatzian aritzen da.

Hortaz gain, 7K aldizkarian ere idazten du. Ez du erreportaje gustorik eta esaten duenez, zaila da publiko guztiari gustatuko zaion idatzi bat egitea. Usurbildarrak jende oso desberdinarekin egin du lan, zaharretatik hasita, gazteenera zein desgaitasun fisiko nahiz psikologikoak dituzten jendearekin baita ere. Normalean, digitalki idazten du, baina, elkarriketa batzuetarako koaderno bat du apunteetarako. Amagoiak bersolaritza txapelketetan ere egin du lan, traskripzioak egiten Gara egunkariarentzat.

Euskararekin lotura

Emakume hau euskararen hizkuntza-komunitatean oso sartua dago eta ahalegin handiak egiten ditu euskaraz hitz egin nahiz entzuteko, familian, kalean, lanean, irrati-tan... Gara egunkaria elebitan izan arren, berak beti idatzi du euskaraz egunkari honen barruan. Amagoiak pentsatu nahi duena, euskararen alde zerbait egin duela da. Nire ustez, berak

ahal zuen guztia egin du eta egiten ari da euskararen alde. Esaten duenez, euskarak denerako balio du egunerokoan; haserre egoteko, triste egoteko, irratia euskaraz entzuteko, dibertitzeko, erreportaje interesgarriak irakurtzeko...

"Uste dut euskara denerako balio duen jantzi bat dela, zentzu horretan, iruditu zait kazetaritzaren ikuspuntutik saiatu naizela jantzi hori josten."

Bakarkako lanak eta erreferenteak

Emakume honen zaletasuna betidanik izan da idaztea, horregatik sartu zen kazetaritzara bi aldiz pentsatu gabe. Hainbat erreportajeetan aitortza lortzeaz gain, bizpahiru liburu idatzi ditu elkarrekin batera:

MUNDUA GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE, BAINA EZ DA

Usurbildarrak liburu hau Bizipoza elkarreentzat idatzi zuen. Liburu hau aniztasun funtzionala duen jendea buruz doa, honek dio mundua ez dela denentzako, izan ere, lehen aipatutakoak zailtasunak izan ohi dituzte gizartearekin bat egiteko. Lan hau egiteko, Amagoiak jende askorekin egin ditu elkarriketak, berarentzat plazer bat da eta interes handia jarri zion gaiari, esan didanez, orain gairi buruz gehiago daki, pertsona hauekiko enpatia gehiago edukitzeaz gain

SENTITU PENTSATU EKIN

Bere hitzetan, ohorea izan zen liburu hau egitea; izan ere, Pirritx, Porrotx eta Marimotots asko miresten ditu. Liburu hau, Pirritx Porrotx eta Marimototsek 25 urte egin zituztenean atera zuten, 2013an hain zuzen. Irakurgai honek pailazo hauen ibilbideari buruz hitz egiten digu.

EUSKARA ARI DU HERNANIN Gainera, Hernaniko Udalarekin batera liburu hau idatzi zuen, euskararen erabilera sustatzeko edota hizkuntzaren egoera herritarrei jakinarazteko. Liburu hau Hernaniko hizkuntza-komunitatean baneratzeko da.



Azkenik, emakume honek baditu erreferenteak kazetaritza alorrean, berak dioenez, ondo idazten duten kazetari guztiak dira bere erreferenteak, hau da, jendearengana esan nahi dutena garbi iristea lortzen dutenak. Baina, baditu bere erreferenteak: idazkerari dagokienez, Joseba Sarrionandia da; pentsalari bezala berriz, Maialen Lujanbio. Esaten duenez, beti daukagu nondik ikasi.

"Badaukagu nondik ikasi, beti"

Egilea: Ganix Urbe Muxika

Mari

“Libre izateko haiz jaioa. Mari, ez zara izango niretzat”. Askok Su Ta Gar-en kantutik ezagutzen dugu gure Anbotoko Dama, txiki txikitatik gure ama. Abesti hontan ez ezik, leku askotan ere entzun dugu izaki honen izena, baina, inoiz ez gara saiatu bera ulertzen. Gaurkoan, Mariren kondaira, izaera, irakaspena eta gaur egungo egoeraz hitz egingo dizuet.

Kondaira

Anbotoko baserri batean bizi zen Mari bere gurasoekin. Neska ilehoria zen eta asko gustatzen zitzaion bere ilea zaintzea.

Hain zuen maite, bere amak zerbait egiteko eskatzen zionean ezetz esaten ziola gauza garrantzitsuagoak zituela egiteko.

Egun batean, ordea, ilea orrazten ari zen bitartean ekaitza sortu zen eta amak horrela esan zion: Mari! Lagun iezadazu animaliak sartzen! Baina, neskatila ez zen joan. Amak orduan haserretuta honela esan zuen: Ea behingoz tximista batek eramaten zaituen! Esan eta egin, une horretan bertan tximista batek Mari hartu eta laino artean desagerrarazi zuen. Ama orduan atsekabetu zen bere alaba ez zuelako gehiago ikusiko, baina orduz geroztik zazpi urtez behin mendietara jeisten da ar-

tzainei laguntzera.

Diotenez, Mari bere bikote Sugaarrekin bizi da koba batean eta nahi dutenean izugarritzko ekaitzak sortzen dituzte. Bestalde, bi seme eduki zituzten: Mikelats (zintzoa) eta Atarrabi (gaiztoa); ongiaren eta gaizkiaren arteko oreka irudikatzen dute.

Izaera eta irakaspena

Marik ez ditu lapurretak, engainua, berekoikeriak eta gezurrak atsegin, hau da, dama zintzo eta prestua da. Diotenez, aipaturiko ezaugarri maltzurren arabera aritzen diren pertsonak zigortu ohi ditu. Gainera, zintzo jokatu behar dela irakasten digu, baita norberarena dena banatzen eta

hurbileko senideak zaintzen ere.

Gaur egun

Lurraren barrualdean bizi da, Anboto mendiko osin eta haitzuloetan, eta hori da, hain zuzen ere, Mariren bizileku nagusia. Dena dela, zazpi urtean behin aldatzen da bizilekuz, eta suak inguratutako joaten da batetik bestera, hodei gorri baten edo haize bolada baten antzera, burrunba handia sortuz. Itxura zoomorfikoak hartu ohi ditu Marik bere lurpeko bizilekue-tan. Esate baterako, zezena aharria, akerra zaldia eta giza itxura hartzen du, berriz, horietatik kanpokoetan. Itxura horietako bat emakume eder eta lirainarena da, ile luzekoa, oinetarai-



noko tunika gorri batez jantzia, urrezko zinta bat duela bekokian; urrezko gaztelu bat eraman ohi du eskuineko eskuan, eta herensuge bat (dragoia) edukitzen du oinen inguruan kiribildurik.

Egilea: Ane Osambela

Antoine D'Abbadieren euskal jaiak

Denek ezagutuko ditugu Euskal Herri osoan ospatzen diren euskal jaiak, zer egiten den jai ahietan... Baina badakizue noiz sortu ziren? Nork? Eta zergatik? Antoine d'Abbadieren euskal jaiak buruz gehiago jakiteko testua irakurri!

Euskal jaiak 1851. urtean

Euskal jaiak Antoine d'Abbadie Irlandarrak sortu zituen 1851. urtean, hau da XIX. mendean Antoine d'Abbadieren helburua euskal ohiturak ez ezik euskal folklorea ere sustatzea eta zabaltzea zen, jai hauen bidez. Eta horretarako ekitaldi ugari antolatzen ziren.

Urte bakoitzean herri desberdin batean ospatzen ziren jai hauek, besteak beste, Urruñan, geroago Saran, Donapelun, Elizondo, Bera...

Jai haien formatua hauxe

izaten zen:

- Txistularien diana
- Meza nagusia agintariekin.
- Pilota partiduak, “herri bazkaria”, bertsolariak, kirol jokoak, abeltzaintza eta nekazaritza lehiaketa eta literatura zein musika lehiaketak.

Irabazleei hainbat sari ematen zitzaizkien esaterako, urrezko ontza eta zilarrez estalitako makila jasotzen zuten.

Gipuzkoan, lehen aldiz, 1879. urtean Donostian antolatu zen. 1893. urtean, Euskal Jaiak Gipuzkoan eta Azepeitan ospatzen hasi ziren. Orduetik aurrera, Foru Aldundiak hartuko zuen jaiak antolatzeko ardura.

Anton d'Abbadie

Anton d'Abbadie 1810. urteko urtarilaren 10 ean jaio zen

Dublinen (Irlanda). Aita euskalduna zuen Urrustoiakoa (zuberoa) ama aldiz irlandesa. Hiru urte zituela bere familiarekin Frantziara joan zen, Toulus-en kokatuz eta gero Arnault eta Charles anaiekin ikasi zuen. 19 urterekin gai fisikoetan espezializatzen amaitu zuen. 1835. urtetik 1849. urterarte ahinbat bidaiara egin zituen eta 1849. urtean Hendayara joan zen. Bere bizitza osoan zehar sari asko jaso zituen. Bestalde, elkarte zientifiko askotatik deitu zioten.

Lore jokoak

Euskal Herrian XIX. mendearen erdialdean sortu ziren lehenengo literatur sariketak. 1853an antolatu zituen Antoine d'Abbadiek lehenbiziko Lore Jokoak. Berez, erromantizismoaren

eraginpean urtean behin antolatutako jaiegunak izan ziren jokoak, non literatura bakarrik ez, euskaldunei eta euskal ohiturei lotutako beste hainbat jardura biltzen ziren. Adibidez: musika, bertsolariak, herri-kirolak, dantzaldiak, irrintzi-lehiaketak, herri-bazkaria... Literaturak leku garrantzitsua zuen jaiegun horietan. Esate baterako irabazitako lanen idazleari saria emateaz gain, testuak altuan ere irakurtzen ziren. Lore Jokoetako literatur sariketak abiapuntu garrantzitsua izan ziren, eta garai orretako euskal idazle garrantzitsu batzuek behin baino gehiagotan hartu zuten parte.

Abaddiek sortu, bultzatu eta diruz babestutako Lore Jokoen

baterako, ni Erefiozun jaioa naiz eta jaio nintzen urtean atsolorra egin zidaten nire lagunekin batera.

Erefiozun urtero egiten da atsolorra, bertara Txirrita eskolara joango diren ikasleak joaten dira normalean, baina ez du zertan; nire lehengusina txikiak, besteak beste, Erefiozun egin zuen atsolorra. Bera urnietarra da, baina bere amaren aldekoak Erefiozuko eta Goizuetakoak dira.

Igande batean izaten da, baina ez dago egun zehatzik jarrita. 17:00 aldera elkartzen gara Erefiozuko ludotekan eta aurkezpena egiten zaie umeei, gainera, haurrei oparitzo txiki bana ematen zaie. Adibidez, azken atsolorra egin zenenan bertso bana kantatu zieten 5. eta 6. mailako ikasleak, baita bertsoak egur baten idatzita eman ere.

Bestalde, ohitura da hasieran txalaparta jotzea eta ondoren

Atsolorra

Atsolorra garai batean Euskal Herrian egiten zen jaiotza erri-tua da, jaio berriari egiten zitzaion ongietorri festa; nagusiki emakumeena. Baina, zergatik egiten zen festa hura? Emakumeentzat etxetik ateratzeko aitzakia zen? Zer esan nahi du atsolorra hitzak? Imaginatu dezakegu zer izan daitekeen, baina oraingo atsolorra eta garai batekoa berdina dira?

Jatorria

Atsolorra hitza jaio berriaren onarpena izendatzeko erabili zen; atso-k emakume esan nahi du eta lorra-k garraiatzea, hain zuzen ere.

Gure aiton-amonon garaian, norbaiti umea jaiotzen zitzaion asteko igandean egiten zen. Ospakizun hori emakumeentzako zuzendutako festa zen normalean, eta izugarritzko poza hartzen zuten auzoan haurra

jaiotzean. Izan ere, garai hartan ezin izaten zuten etxetik atera, orduan hau izaten zen aukera edo aitzakia bakarra etxetik ateratzeko.

Festa amaren etxean izaten zen, umea eduki eta elizara sartu arte, ezin baitzuten etxetik atera. Kasu txarrenean, beste aukerarik ez zutenean, buru gainean teila bat jarrita atera behar izaten zuten, hau da, teilapean jarraitzeko.

Igandea iristean denak amaren etxean elkartzen ziren eta gonbidatuak opari bat eramaten zioan amari. Haurren familiakoek, berriz, gonbidatuei afari-merienda bat prestatzen zieten.

Gaur egun

Gaur egun atsolorra Euskal Herriko leku askotan egiten da, baina datuen arabera, Erefiozun mantentzen da gehien. Esate



bidetik, XIX. mendeko azken urteetan eta XX.eko lehenengo bi hamarkadetan Hego Euskal Herriko zenbait udaletzek, Aldundik eta kultur elkartek Euskal Jaiak, Lore Jokoei izen honekin deitu izan zaie, eta beste sariketa batzuk antolatu zituzten. Egun bat baino gehiagokoak ziren jai horiek, baina ekintzak hasierako Lore Jokoen antzekoak ziren.

Egilea: Maddi Galarraga Manjarres, IB



auzoko musikariren batek abestea. Oparitzoa eman ostean, argazkia ateratzen da; bertan, ospakizunera joan direnak ateratzen dira. Argazkia atera ondoren, merendola egoten da.

Festa hau guztia umeei bizitzara, Erefiozura eta Txirrita eskolara ongi etorri egiteko

ospakizuna izaten da, alegia, herrira ongi etorri polit bat egiteko izaten da eta jarraituko du.

Ez dezagun ohitura polit hori galdu!

Egilea: Maddi Santa Cruz Arriola, IH

Txondorra

Ba ahal dakizu zer den txondorra? Txondorraren erabilera urteetan aldatzen joan da. Urteak atzera joanda, oso ezaguna zen txondorra, lanbide bat izatera ere iritsi zen. Nola egiten zen? Zer material behar zen egiteko? Gaur egun elktrizitatea, gasa... ditugu, baina honen helburuarekin gauza asko egiten zituzten aspaldian. Gelakide gehienok Irrisarrin ikusi genituen batzuk, gogoratzen? Animatu gehiago ezagutzera!

Txondorraren sorrera

Txondorra egur ikatza lortzeko egiten zuten egur-meta da. Izan ere, garai batean, ikatza oso baliabide garrantzitsua eta erabilgarria zen.

Lehen txondorrek XIX. mendean bukaera artean sortu ziren.

Hala ere, denborarekin garatzen joan dira. Gaur egun, txondorra egiten jarraitzen dute Euskal Herriko hainbat lekutan, baina lehenagoko lanbidea nolakoa zen erakusteko batez ere; garai bateko burdinolek eta bai ondorengo burdin lantegiak ere, tokia kendu baitio honi.

Txondorraren prestaketa

Lehenik eta behin, txondorra egiten hasteko, ikazkinek txondor plaza prestatzen zuten. Txondor-plaza egiteko lekuak laua izan behar du, baita haizearen babesean egon ere; izan ere, egurra ahalik eta egokien egostea komeni da.

Ondoren, ikatza egiteko, egurra behar da. Horretarako, ekaitzek lurrera botatuko zuhaitzetatik ateratzen zuten egurra, edo bestela ikazkinek beraiek botatzen zuten zuhaitza. Egur hori egun ahalik eta lehorren biltzen zuten. Nahiago izaten zen gaztainondo, haritz eta pago zuhaitzak erabiltzea, baina, horiez gain, beste zuhaitz desberdinak erabil daitezke ere.

Jarraian, egurra txikitu eta moztu egiten zuten. Ikazkinek armiarma sare moduko bat osatzen zuten, makiltxo txikiekin egina, egur meta egiten hasteko.

Sarean tokoa jartzen zuten. Tokioa enbor lodi bat da eta horren gainean kaiola edo kebea eraikitzen zuten.

Azken hori egur zati motz eta txikiak egiten zen zutabea da. Erdi erdian, kaiolaren barranean, zuloa dago eta bertan ez zen ezer aurkitzen, orduan, honen barrutik sartzen zuten alkatea. Alkatea, makil bat da,

erakutsi omen zien: zuen etxeke ateetan jarri behar duzue horrela gaueko izaki beldurgarriak beraien gordelekutik ateratzen, eguzkia dela pentsatuko dute eta uxatu egingo dira. Babesturik biziko zarete, bai egunez eta baita gauez!! Ordu ezkerotik, Euskal Herriko gizakiak amalurrak emandako laguntzari esker babesturik bizi dira.

etaz, debekatuta dago moztea.



zutabe honen altura bera duena, eta kaiola erditik, zutik sartzen zuten.

Bestalde, kaiola makilaren inguruan zegoen eta egur zati lodienak haren inguruan kokatzen ziren, meheenak, aldiz, kanpoalderantz, hau da, txondorra egiteko laguntzen zuten. Azkenik, hosto lehorrez eta lurrez txondor guztia estaltzen zuten, bestela, egurra erre egingo

litzateke eta.

Horrela, txondorra eraikita zela, egur-metaren gainaldean zulo bat egin, alkatea atera, eta eskailera baten bitartez txondor goitik, egur zatiak edo betegarria bertatik bota eta pizten zuten sua. Gero, makila berriro sartu eta orduan jada prest dago!

Egilea: Eneko Oiaga, IE

Eguzkilorea

Euskal Herrian hainbat kultur tradizio eta sinesmen egon dira. Horieta bat eguzkilorea da. Argiz eta indarrez betetako landarea. Berari buruz, hainbat kondaira eta istorio daude belaunaldiz belaunaldi transmititu direnak. Horrela, Euskal Herriko ikurrik tradizionala eta bat bihurtu da, sinbolismoz beteriko lorea bilakatu delarik.

Denbora joan denbora etorri, egun, Euskal Herriko zenbait etxeetako atarrietan ikus ditza-kegu.

Definizioa

Lore hori edo laranja handiak ematen dituen landarea da. Euskal Herrian bi espezie ditugu: eguzki-lore luzea (Carlina Acaulis) baita eguzki-lore laburra (Carlina acanthifolia). Biak mendi-larreetan hazten dira.

Ezaugarriak

Ereiten denetik lorea ateratzen den arte gutxienez bi urte igarotzen dira. Ia lurrari itsatsita hazten da eta hosto arantzatsu zabalak ditu. Ez dira zimeltzen eta lehortzen direnean edertasun guztia mantentzen dute. Sustraietatik propietate antibiotikoak dituen olio atera daiteke. Gainera, usain berezia eta atsegina du. Ez hori bakarrik, ekzenak eta aknea larru azaleko krema bat da larruazala zaintzeko eta taatzeko erabili ohi da. Aintzinean, izurriaren pandemia hau da, gaixotasun larri bat (covid 19aren antzekoa) sendatzeko erabili zuten.

Mitologia

Euskal mitologian, oso maitatua da.

Baserri edo borden atean, eguzki-lore bat zintzilikatu ohi zuten sorginak, izaki gaiztoak

erakutsi omen zien: zuen etxeke ateetan jarri behar duzue horrela gaueko izaki beldurgarriak beraien gordelekutik ateratzen, eguzkia dela pentsatuko dute eta uxatu egingo dira. Babesturik biziko zarete, bai egunez eta baita gauez!! Ordu ezkerotik, Euskal Herriko gizakiak amalurrak emandako laguntzari esker babesturik bizi dira.

Erabilera

Halaber baserri giroko leku askotan jartzen bada ere orokorrean erabilera nagusia dekoratiboa da.

Siniskeria hori, Mendebaldeko Europako herrialde askotan jasotzen da esaterako, Pirineo mendietako bi alboetan Aragoi eta Alpeetako eskualdean.

Kondaira

Kondaira zahar bat dago, 1.000 urte dituen. Honen arabera, denboraren hasieran, gizakiak lurra aztertzen hasi zirenean ez zegoen eguzkirik ez ilargiarik eta iluntasun handietan egoten zekiten. Izaki asko beldurtuta bizi ziren: dragoiengaitik, sorginengaitik, e.a. Gauzak horrela, Amalurri (ama lurra euskaraz) laguntza eskatzea erabaki zuten eta amalurrak sekretu bat

erakutsi omen zien: zuen etxeke ateetan jarri behar duzue horrela gaueko izaki beldurgarriak beraien gordelekutik ateratzen, eguzkia dela pentsatuko dute eta uxatu egingo dira. Babesturik biziko zarete, bai egunez eta baita gauez!! Ordu ezkerotik, Euskal Herriko gizakiak amalurrak emandako laguntzari esker babesturik bizi dira.

Kondaira hau, belaunaldiz belaunaldi transmititu izan da. Honela, sinesmenez edo sinbolismoz beteriko lorea bilakatu delarik.

Kokapena

Europa erdialdean, alegia Pirinioetan eta Kantauriar mendietan aurki daiteke, batez ere, Ekaina eta iraila artean. Normalean, mendi hegaletan, larreetan edo belardietan hazten da. 800m altitudetan egoten da eta leku horietan haizea egoten denez haziak zabaltzen dizkio. Egun, landare babestua da, hortaz, debekatuta dago moztea.



Ikustea geroz eta zailagoa da bi arrazoi nagusiengatik: alde batetik, klima aldaketa eta bestetik, gehiegizko kontsumoa. Ondorioz, "arriskuan dagoen lore edo landare" gisa katalogatu dute. Hala ere, laborantza naturala izan duen eguzki-lorea lortu daiteke edo artisau baten kopia erosi.

Anima zaitez zure etxe edo baserri atarrietan jartzera!

Egilea: Jara Salaberria Pikabea ID

Burgiko Almadia

Burgiko almadia festa ospetsu bat da, bestalde, aurten 31.edizioa ospatu da. 1990ean ospatu zen lehen aldiz eta gaur egun jende ugari erakartzen du. Benetan horren festa polita da? Merezki du hara joatea?

Kokapena

Festa hau Nafarroako Burgi herrian ospatzen da. Aurten go edizioa 31.edizioa da. Urtero data antzeko batean ospatzen da, maiatzeko lehenengo asteburuan edo apirilko azken asteburuan, dena den, festa hau ospatzeko Ezka errekek emaria eduki behar du.

Jatorria

Aspaldi, almadiak egitea, zura, hau da, egurra garraiatzeko modurik onena zen. Basoetatik hirietara eramaten zuten bertan saltzeko.

Festa hau, 1990ean ospatu zen lehen aldiz, Francisco Javier Beunza almadiero ofizioko langile sutsuak indarra eman zioenean festari. Dena den, 2005ean festa turistiko nazional bezela ofizializatu zen, halaber, hortik aurrera ikaragarritzko jendea joaten da.

Egun Ahaztezina

Oso momentu polita da ikustea

almadia baten gainean, enborez egindako txalupa baten gainean pertsonak errekatik Burgiko erdiaroko zubirarte jeisten. Oso famatua da, esate baterako, herriko bazkaria, urrezko Almadia-entrega omenuei, musika saioa eta erdi aroko merkaturia egun hau ahaztezina egiten dutena.

Bitxikeriak

Bitxikeri bezela, Burgiko Almadien eguna tradizio bihurtu den Nafarroako festa garrantzitsuenetako bat da, gainera, urtero bertan 7.500 pertsona biltzen dira.

Ekintzak

Bestalde, egun honetaz gozatzearaz gain, ekintza hauek egin daitezke bertan. Burgi, Erron-



kari eta Isabako udalerrak bisitatu, Erronkariko bailaratik egin daiteken edozein ibilbide eta Julian Gayarren Mausoleoa bisitatu edo Burgiko almadien museoa bisitatu.

Egilea: Ibai Lamuedra Zumeta, IA